


Utzi beharko genieke lagunei
gure ordezt erabakiak hartzen?
Eta nolakoak izan behar dugun
eta zer edo nor gustatu behar
zaigun esango baligute?

RAQUEL DÍAZ REGUERA-REN
NI NEUREKIN NOA ETA *NI NAIZ* BILDUMA ARRAKASTATSUAK
125.000 ALETIK GORA SALDU DITU.



NI NAIZ

Raquel Díaz Reguera



NI NAIZ



RAQUEL DÍAZ REGUERA



*Gizakiok ez diogu zertan
etiketen zamari eutsi.
Guztiok bakarrak gara
eta nork bere burua definitu behar du,
nahi duen modukoa izan,
libreki erabaki
eta bere bidea egin.*



Ni naiz

Somos8 bilduma

© testuarena eta irudiena: Raquel Díaz Reguera, 2019/2026

© edizioarena: NubeOcho, 2026

© itzulpenarena: Iraitz Urkulo, 2026

www.nubeocho.com · info@nubeocho.com

Jatorrizko izenburua: Yo soy

Lehen argitalpena: Iraila, 2026

ISBN: 979-13-88434-14-3

Lege Gordailua: M-18677-2026

Portugalen inprimatua.

Eskubide guztiak erreserbatuta.

Debekatuta dago obra honen erreprodukzioa.

NI NAIZ

Raquel Díaz Reguera



Martin dut izena.





Eta burua **txoriz beteta** duen neska bat
gustatzen zait. Nire albotik pasatzen denean,
azkura sentitzen dut sudurrean eta belaunak
dardarka hasten zaizkit.

Baina **disimulatu** egiten dut eta,
zorionez, bera **ez da** ohartzen.





Eskolan, onenetakoa naiz futbolean, oso ongi ibiltzen naiz bizikletan eta nire adineko beste mutil batzuk baino nagusiagoa naizela dirudi.

Gure lagun taldekoei **POPURAK** esaten digute, popularrak garelako. Ez diogu edonori gure taldean sartzen uzten, eta pentsatzen dut taldekideek ez luketela onartuko nik begia botako banio hain neska... ezberdini?, arrarori?

Uste dut arrazoi dutela.



Set of men's stylish hairstyles



GOMINA

Gaur, Koldo adiskideak, barrez lehertzeaz, hau esan dit:

—Nola gustatuko ote zaizu neska hori? Ez al dituzu haren **ile-mototsak** ikusi? Zuk futbol-jokalari famatuaren **orrazkera** daramazu, neska hori ez da zuretzat.

Kopetako ilea orraztu dut berriz eta **arrazoi duela** pentsatu dut.





—Ikusi dituzu haren **betaurreko handiak**? —galdetu dit Alexandro adiskideak—. Zuk zure **eguzkitako betaurreko** dotoreak daramatzazu beti, inoiz ez zenuke halakorik jantziko.

Nire **kopetako ilea** orraztu dut berriz, begiak kliskatu ditut **eguzkitako betaurrekoen** atzean eta **arrazoi duela** pentsatu dut.





Gaur **neska** “**arraroaren**” albotik pasatu naiz eta begira ari zitzaidala nabaritu dut. Nik ez ikusiarena egin diot, baina **ile-mototsik** eta **betaurrekorik** ez zeramala ohartu naiz.

Beti bezala, ezin izan dut saihestu: azkura sentitu dut sudurrean eta belaunak dardarka hasi zaizkit, baina aurrera jarraitu dut...
ezin zaidalako gustatu!

